

BERRIKUSPEN-KONTROLA

BERRIKUSP ENA	ARRAZOIA	EGUNA
00	Kontratazioko lege berria. P-14-01en argitalpena. Prozedura horrek P-06.02 eta haren 08. berrikuspena ordeztu du.	08/03/06
01	Kontratazio-organoen konfigurazioa aldatzen du; Kontratazio-mahaiaren osaera; Administrazio Kontseiluak ahalmenak eskuordetzen dizkio Zuzendaritza Nagusiari, kontratazio-organo gisa eta Kontratazioko Barne Jarraibideak aldatzeko.	08/04/22
02	Kontratu harmonizatueterako zenbatekoak aldatzen ditu, abenduaren 27ko EHA/3875/2007 Aginduan xedatutakoa betez.	08/04/30
03	Dokumentuaren berrikuspena haren egitura aldatzeko, eta, horrela, harmonizatueterako erregulaziopean ez dauden kontratuen prozedura sinplifikatzeko eta kontratugilearen profilean publikitatearekin negoziatutako prozedura aplikatzeko, harmonizatueterako erregulaziopean ez dauden kontratu jakin batzuetarako irekitako/mugatutako prozeduraren ordezkatzailerako gisa	08/06/25
04	Kontratu harmonizatueterako zenbatekoak aldatzen ditu, abenduaren 23ko EHA/3497/2009 Aginduaren arabera; horren bidez, jendaurrean jartzen dira 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako administrazio-kontrataziorako ondorioetarako kontratuen mugak.	09/03/01
05	Adjudikatzeko prozedura aldatzen du, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea aldatzen duen abuztuaren 5eko 34/2010 Legeari jarraikiz.	10/09/09
06	Kontratazio organoak egokitzea; kontratuak aldatzeko erregimena aldatzen du urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legea aldatzen duen Legearen arabera, eta ordainketa erregimena aldatzen du, 2011ko apirilaren 12ko Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordioaren arabera.	2011/07/11
07	Kontrataziorako Barne Instrukzioak egokitzea azaroaren 14ko Legegintzako Errege Dekretura, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina, eta kontratu harmonizatueterako zenbatekoak aldatzea, azaroaren 30eko 1251/2011 zenbakidun Araudiaren arabera; horren bidez, argitara eman dira kontratu mota ezberdinen mugak, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera egingo diren administrazio-kontratueterako.	2012/01/13
08	Kontratazio-organoen konfigurazioa eta Kontratazio-mahaiaren osaketa aldatzen du	2013/01/22
09	Kontratazio-prozedura Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legera egokitzea. Prozedura horrek I-14.03ren 08. berrikuspena jarraitzen du.	2018/04/11
10	Instrukzioa egokitzea kontratazioa arautzeko eta gainbegiratzeko bulego independentearen otsailaren 28ko 1/2019 jarraibidera eta zenbateko txikietarako kontrataziorako barne-prozedura aldatzea.	2019/06/04
11	Kontratu harmonizatueterako zenbatekoak aldatzen ditu, abenduaren 16ko HCA/1272/2019 Aginduaren arabera; horren bidez, jendaurrean jartzen dira 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako administrazio-kontrataziorako ondorioetarako kontratuen mugak argitaratzen dira.	20/01/01
12	Otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretura egokitzea (premiatzeko neurriei buruzkoa. Horren bidez, sektore zehatz batzuetako kontratazio publikoaren arloko Europar Batasunaren zenbait zuzentarau sartzen dira Espainiako ordenamendu juridikoan, 2020ko otsailaren 6tik aurrera).	20/02/01
13	2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen bidez 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera egindako aldaketetara egokitzea.	21/01/07
14	Kontratu harmonizatueterako zenbatekoak aldatzen ditu, abenduaren 16ko HCA/1272/2019 Aginduaren arabera; horren bidez, jendaurrean jartzen dira 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako administrazio-kontrataziorako ondorioetarako kontratuen mugak.	21/11/16
Egilea: Zuzendaritza juridikoa Izena: Alberto Arzamendi		
Berrikuslea: Zuzendaritza Batzordea Izena: Carlos Quindós		
Nork onetsia: Zuzendaritza Batzordea Izena: Carlos Quindós		

AURKIBIDEA**I. ALDERDI OROKORRAK**

LEHENENGOA.- Xedea.

BIGARRENA.- Salbuetsitako negozioak eta kontratuak

HIRUGARRENA.- Erregulazio harmonizatuaren menpeko kontratuak

LAUGARRENA.- Kontratazio-organoak

BOSGARRENA.- Kontratazio-espeditentak

SEIGARRENA.- Administrazio-baldintza partikularren agiriak eta preskripzio teknikoen agiriak

ZAZPIGARRENA.- Kontratazio-prozedura

ZORTZIGARRENA.- Kontratatzailearen profila

BEDERATZIGARRENA.- Kontratazioaren formalizazioa

HAMARGARRENA.- Kontratuen ondorioak eta kontratuak iraungitzea

II. AIPATUTAKO DOKUMENTUAK. FORMATUA**III. I. ERANSKINA. KONTRATAZIO-RAKO BARNE-PROZEDURAREN
LABURPEN-ESKEMA****I. ALDERDI OROKORRAK****Lehenengoa. - Xedea**

Prozedura honen menpe daude VISESAk hirugarrenekin egindako kostu bidezko kontratuak, horien izaera juridikoa edozein dela ere, ondasunak, zerbitzuak edo obrak lortzeko.

Kontratatistak zuzenean edo zeharka etekin ekonomikoren bat lortzen duenean joko da kontratua kostu bidezkotzat.

Kontratuen xedea zehatza izan beharko da, bete nahi diren behar edo funtzionaltasun zehatzen arabera zehaztu ahalko da, kontratuaren xedea konponbide bakarrera itxi gabe.

Kontratua ezin da zatitu haren zenbatekoa gutxitzeko eta, horrela, dagozkion publikotasun-betekizunak edo adjudikazio-prozedurako betekizunak saihesteko asmoarekin.

Kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusitako beharko da, sortaka zatituta.

Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez

zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean –espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek–.

Bigarrena. - Salbuetsitako negozioak eta kontratuak

Kontratazioko barne-prozedura honen esparruaren kanpo daude honako negozio eta harreman juridikoak:

1. Ondasun higiezin, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu-programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko direlako). Aipatutako horiek guztiek kontratu pribatuen izaera izango dute, eta ondare-legeriaren menpe egongo dira.

Kontratu horietan soilik sartu ahalko dira Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legean araututako kontratu tipikoek berezko dituzten prestazioak, baldin eta zenbateko balioetsiak negozioaren zenbateko osoaren 100eko 50 gainditzen ez badu eta aldi berean ondare-kontratuaren ohiko prestazioarekin lotura- edo osagarritasun-harremana badu.

2. Baloreak edo bestelako tresna finantzarioak jaulki, erosi, saldu edo eskualdatzearekin lotutako finantza-zerbitzuei dagozkien kontratuak, Tresna finantzarioen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko [2004/39/EE Zuzentarauaren](#) ildotik. Halaber, kanpoan gelditzen dira Espainiako Bankuak ematen dituen zerbitzuak eta Finantza Egonkortzeko Funts Europarrarekin eta Egonkortasun Mekanismo Europarrarekin egiten diren eragiketak, bai eta mailegu-kontratuak eta diruzaintza-eragiketak ere, baloreen nahiz bestelako finantza-tresnen jaulkipenarekin, salmentarekin, erosketarekin edo transferentziarekin lotuta egon zein ez.
3. Lan-legerian araututako kontratuak.
4. Zerbitzu publikoren bat emateko harreman juridikoak, baldin eta erabiltzaileek, zerbitzu hori jaso ahal izateko, guztiei aplikatu beharreko tarifa, tasa edo prezio publikoa ordaindu behar badute.
5. Arbitraje- eta adiskidetze-zerbitzuei buruzko kontratuak.
6. Sektore publikoko erakunde bat ondasunak edo eskubideak ematera edo zerbitzuren bat betetzera behartzen duten kontratuak
7. Erakunde pribatuek zerbitzuak ematea, baldin eta zerbitzu-emate hori egiten bada kontratu publikoak egiteko beharrik gabe, besteak beste honako bitarteko hauen bitartez: zerbitzu horien finantzaketa soila, edo botere adjudikatzaileak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei lizentziak edo baimenak ematea, mugarik eta kuotarik ezarri gabe, baldin eta sistema horrek publizitate nahikoa bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei egokitzen bazaie.
8. Sektore publikoko ikastetxeetan irakaskuntza jarduerak emateko xedea duten kontratuetan (Administrazioaren zerbitzura dauden langileen prestakuntza- eta perfektzionamendu-ikastaro gisa) edo mintegietan, mahai-inguruetan, konferentzietan, lankidetzetan edo antzeko beste edozein jardueratan, baldin eta jarduera horiek persona fisikoek egiten badituzte, SPKLren xedapenak ez dira aplikagarriak izango kontratua prestatu eta adjudikatzeko.

9. 100 euro baino gutxiagoko gastuak (BEZ barik).**Hirugarrena. - Erregulazio harmonizatuaren menpeko kontratuak**

Erregulazio harmonizatuaren menpe daude obren, obren emakidaren, zerbitzuen emakidaren, horniduren eta zerbitzuen kontratuak, baldin eta horien balio zenbatetsia honako hau edo handiagoa bada:

- 5.382. 000 € (BEZ barik), obren kontratuetan.

- 215. 000 € (BEZ barik), zerbitzuen eta horniduren kontratuetan.

Hala ere, ez dira egongo erregulazio harmonizatuaren menpe, euren balioa edozein dela ere, honako hauek:

Honako zerbitzu juridiko hauek xede dituen edozein kontratu:

1. Prokuradore batek edo abokatu batek bezero bat ordezkatzea eta haren legezko defentsa egitea, dela estatu batean edo kontziliazioko edo arbitrajeko nazioarteko instantzia batean egindako arbitraje batean edo egindako kontziliazio batean, dela estatu bateko organo jurisdikzionalen edo agintari publikoen aurreko edo nazioarteko organo jurisdikzionalen edo erakundeen aurreko prozedura judizial batean.

2. Aurreko atalean aipatutako prozeduretako bat prestatzeko emandako aholkularitza juridikoa, edo aholkularitzako gaia prozedura horien xede izateko probabilitate handia dagoenean ematen den aholkularitza, baldin eta aholkularitza-lana abokatu batek egiten badu.

3. Notario publiko batek eman beharreko ziurtatze- edo autentifikazio.-zerbitzuak

4. Administratzaileek, tutoreek edo beste zerbitzu juridiko batzuek ematen dituzten zerbitzu juridikoak, zerbitzu-emaileak organo jurisdikzional batek izendatuak direnean edo legez izendatuak direnean eginkizun berariazko batzuk betetzeko organo jurisdikzional horiek gainbegiratuta.

5. Botere publikoa baliatzearekin noizean behin bada ere lotuta dauden beste zerbitzu juridiko batzuk.

6. Irabazi asmorik gabeko antolakundeek edo elkarteek defentsa zibilaren, babes zibilaren eta laneko arriskuaren prebentzioaren alorretan ematen dituzten eta honako CPV kode hauetakoak diren zerbitzuak dauzkatenak xedetzat: 75250000-3, 75251000-0, 75251100-1, 75251110-4, 75251120-7, 75252000-7, 75222000- 8; 98113100-9; 85143000- 3, salbu eta gaixoak anbulantziaz garraiatzeko zerbitzuak.

Laugarrena. - Kontratazio-organoak

Kontratazio-organoak dagokion kontratuaren zenbatekoaren arabera izango dira, eta hasiera batean honela ezarriko dira:

- *Obren kontratuak:*
 - Administrazio Kontseilua: 3.000.000 eurotik gorako zenbatekoak.
 - Zuzendari nagusia: 2.999.999 € arteko zenbatekoak.
- *Zerbitzuen kontratuak:*
 - Administrazio Kontseilua: 1.000.000 eurotik gorako zenbatekoak.
 - Zuzendari nagusia: 999.999 € arteko zenbatekoak.
- *Hornidura kontratua*
 - Administrazio Kontseilua: 600.000 eurotik gorako zenbatekoak.

- Zuzendari nagusia: 599.999 € arteko zenbatekoak.

Bosgarrena. - Kontratazio espedienteak

1. Justifikazioa

Kontratuak egiteko, dagokien espedientea izapidetu beharko da aldez aurretik. Kontratazio-organoa hasiko da espedientea izapidetzen, eta, horretarako, kontratuaren beharrianaren arrazoiak emango ditu, eta kontratatzailearen profilean argitaratu.

VISESAk ezingo ditu erakunde-xedeak bete eta egiteko beharrezko kontratuak ez diren beste kontratu batzuk egin.

Horretarako, proiektatutako kontratuaren bidez estali nahi diren beharrianen izaera eta hedadura, eta xedearen nahiz edukiaren egokitasuna zehatz-mehatz mugatu behar dira; hala, kontratu ireki, mugatu edo publikitate gabeko negoziatu gabeko kontratu bidez adjudikatzean, zehaztasunez ezarri beharko dira, eta hori jasota geratuko da espedientea prestatzeko agirietan, adjudikatzeko prozedura abiarazi aurretik.

2. Abiaraztea

Espedientean behar bezala justifikatuko da:

- Lizitazio-prozeduraren hautapena.
- Partaideei eskatutako sailkapena.
- Kaudimen tekniko edo profesionaleko eta ekonomiko eta finantzarioko irizpideak, bai eta kontratua adjudikatzeko aintzat hartuko diren irizpideak eta hura egikaritzeko baldintza bereziak ere.
- Kontratuaren balio zenbatetsia, hura osatzen duten kontzeptu guztiak adierazita; horren barnean, lan-kostuak egongo dira, halakorik bada.
- Kasuan kasuko prestazioak kontratatuz VISESAk bete nahi duen beharrian; eta kontratuaren xedearekin daukan lotura, zeinak zuzena, argia eta proportzionala izan beharko baitu.
- Zerbitzu-kontratuetan, baliabide nahikorik ez egoteari buruzko txostena.
- Kontratuaren objektua sortatan ez zatitzeko erabakia, hori erabakitzen bada.

3. Onespena

Kontratazio-espedientea osatu eta gero, arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du kontratazio-organoak, espedientea onesteko, eta adjudikazio-prozedura irekitzea xedatzeko. Ebazpen hori kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

4. Kontratazio-espedientea kontratu txikietan

Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira.

5.000 euro baino gehiagoko (BEZ barik) balio zenbatetsia duten kontratu txikietan, espedientearen izapidetzeak kontratazio-organoaren txostena eskatuko du, kontratuaren beharrianaren zioak ematen dituen. Espedientean justifikatuko da ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari kontratazioaren arau orokorren aplikazioa saihesteko, eta kontratistak ez duela izenpetu kontratu txiki gehiagorik, banaka edo guztiak batera artikulua honen lehenengo

apartatuan ageri den kopurua gainditzen duenik.

Obra-kontratu txikian, obren aurrekontua ere gehitu beharko da; nolana ere, dagokion proiektua ere beharko da arau espezifikoek horrela eskatzen dutenean.

5.000 euro baino gehiagoko (BEZ barik) balio zenbatetsia duten kontratu txikietan, beharrian-txostenean, gutxienez hiru eskaintzaren eskaera jasoko da. Eskaintza horiek espedientearen sartuko dira, VISESaren interesetarako kalitate-prezio harremanik onena duen eskaintza hautatzeko justifikazioarekin batera. Aurrekoa ez bada posible, horretarako justifikazio arrazoitua gehitu beharko da txostenean.

Kontratazioa izapidetzen den bitartean sortutako dokumentuek kontratazio-espedientea osatzen dute. Dokumentu horiek behar bezala kodifikatu eta artxibatuko dituzte zerbitzu juridikoek, zenbatekoaren arabera, idatziz formalizatutako kontratua behar izan dutenean. Gainerako kasuetan (kontratu txikiak), sortutako dokumentazioa kontratazioaren eskatzaileak artxibatuko du.

Seigarrena. - Administrazio-baldintza partikularren agiriak eta preskripzio teknikoaren agiriak.

Kontratu guztietan (kontratu txikietan izan ezik) haren oinarritzko ezaugarriak ezartzen dituen baldintzen agiria egon beharko da.

1. Administrazio-baldintza partikularren agiriak

Administrazio-klausula partikularren agiriak gastua baimendu aurretik edo baimentzearekin batera onartu behar dira, baina beti kontratua lizitatu aurretik edo, lizitaziorik egon ezean, adjudikatu aurretik.

Akats materialak, izatezko akatsak edo akats aritmetikoak egin badira aldatu ahal izango dira bakarrik. Gainerakoetan, baldintza-agiria aldatzeak jarduketak atzera ekartzea ekarriko du berekin.

Administrazio-baldintza partikularren agirian honako hauek gehituko dira:

- Kontratuaren kaudimen- eta adjudikazio-irizpideak;
- Kaudimen- eta adjudikazio-irizpide gisa edo egikaritzeko baldintza berezi gisa ezarritako kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak;
- kontratuko alderdien eskubideak eta betebeharrak definitzen dituzten itunak eta baldintzak;
- kontratuaren lagapen-aurreikuspena, salbu eta hori ezinezkoa denean;
- langileen soldata-baldintzak betetzeko adjudikaziodunaren beharra, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera;

Kontratu mistoen kasuen, ondorioei, betetzeari eta iraungitzeari aplikatu ahal zaien araubide juridikoari dagokionez, euren artean bat egindako prestazioei aplikatu ahal zaizkien araudiak hartuko dira kontuan.

Administrazio-baldintza partikularren agiriek zigorrak ezarri ahalko dituzte prestazioaren ezaugarriei eragiten dieten ez-betetze edo betetze akastunetarako, batez ere adjudikazio-irizpideak definitzeko kontuan hartu direnean, edo ezaugarri horiek unean-unean betetzeari funtsezko kontratu-betebeharraren izaera egotzi zaionean.

Agiri hori VISESaren zerbitzu juridikoek egingo dute, dagokion sailak xede horrez beharrezko dokumentazioa bidali ostean, 5 egun baliodun lehenago, eta agiria kontratazio-organoak onetsiko du.

Organo horrek agiri-ereduak erabiltzea onetsi ahal du, baimendu beharrezko kontratazioetarako.

Kontratuak administrazio-baldintza partikularren agirien edukira egokituko dira, eta kontratuaren klausulak agirien parte izango dira.

2. Preskripzio teknikoan agiria

Gastua baimendu aurretik onartu behar ditu kontratazio-organoak, edo gastua baimentzearekin batera, prestazioa arautuko duten eta haren kalitateak, gizarte-baldintzak eta ingurumen-baldintzak definituko dituzten preskripzio tekniko partikularrak jasotzen dituzten baldintza-agiriak eta dokumentuak, eta, betiere, kontratua lizitatu aurretik.

Izatezko akatsak edo akats aritmetikoak egin badira aldatu ahal izango dira bakarrik. Gainerakoetan, baldintza-agiria aldatzeak jarduketak atzera ekartzea ekarriko du berekin.

Agirien onespena zuzendari nagusiaren esku egongo da beti, kontratazio-organoak beste batzuk direnean ere. Kasu horietan, kontratazio-organo horien gaikuntzarekin jardungo du. Gaitasunen adjudikazio hori gauzatzat joko da kontratazio-ko barne-prozedura hau onesten den unean.

Zazpigarrena. - Kontratazio-prozedura

Oro har, adierazitako salbuespenak izan ezik, adjudikazio oro egongo da prozedura honen menpe:

1. Kontratazio-eskaera

- a) Behar duen sozietatearen barne-langileek egindako kontratazio-eskaera egotea, kontratua egin dadin, horren beharra zehaztuta. Intranet espazioan eskuragarri dagoen formatuan gauzatu da.
- b) 5.000 eurotik gorako (BEZ barik) balio zenbatetsia duten eskaeretarako, halabeharrez erantsi beharko da beharri buruzko txostena, PR07.P01.F01en arabera.
- c) Kontratazio-eskera horrek sail eskaintzailearen zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Finantza Sailaren zuzendaritzaren oniritzia izan beharko du, kreditu eskuragarria dagoela egiaztatze aldera, salbu eta eskaera zuzendari nagusiak egin badu. Kasu horretan, Ekonomia eta Finantza Sailaren zuzendaritzaren jakinarazpena baino ez da behar.
- d) Kontratazio-eskaerak kontratazio-ko beharrezko zehaztapen teknikoak izan beharko ditu, eta, horretarako, sail eskaintzaileak egindako preskripzio teknikoan agiria erantsi beharko da. Agiriak prestazioa arautuko duten preskripzioak izan beharko ditu, eskatutako kalitateak, produktuaren betekizunak, etab. zehaztuta.
- e) Kontratazio-eskaeratik eta zehaztapen teknikoetatik abiatuta, Sail Juridikoak Administrazio-baldintza partikularren agiria egingo du. Agiri horretan kontratuaren oinarritzko ezaugarriak ezarri beharko dira.
- f) Kontratazio-organoak, hala badagokio, agiriak eta proiektua onestea, eta kontratuaren arduraduna izendatzea. Maiz erabiltzen diren agiri tipoei badaude, horiek onestea nahikoa izango da agiri partikularrak onetsitzat jotzeko.

g) Salbuespenak: 1) Ez da agiririk egin beharko KONTRATU TXIKIEN kasuan;

2. Kontratazio-eskaera izapidetzea:

a) Kontratu txikietan, kontratuaren arduradunak (edo kontratazioaren eskatzaileak), eskaintza/aurrekontua eskatu beharko du:

Eskaintzen aurrekontuak, gutxienez, honako hau jasoko du:

- Kontratuaren xedearen deskribapena eta oinarritzko ezaugarriak.
 - Kontratuaren gehieneko prezioa eta aplikatu beharreko zergen zehaztapena.
 - Kontratuaren iraupena. Urtebetez, luzatzeko aukerarik gabe.
 - Lizitatzailerak aurkeztu beharreko dokumentazioa eta eskaintzak aurkezteko modua eta epea.
 - Ondasuna edo zerbitzua emateko tokia eta epea.
 - Ordaintzeko modua eta faktura emateko betebeharra.
 - **Hiru eskaintzen eskaera egiaztatzea.**
 - Zerbitzua edo hornikuntza zuzen emateko beharrezkotzat jotzen den beste edozein baldintza, edo erosi beharreko ondasunaren ezaugarrietatik eratorritakoak.
- b) Erregulazio harmonizatutako kontratuak prestatu eta adjudikatzeko SPKLren II. liburuko I. tituluko I. kapituluko 1. eta 2. ataletan ezarritako arauak aplikatuko dira.
- c) Erregulazioko harmonizatua ez duten kontratuak prestatzean eta adjudikatzean SPKLren II. liburuko I. tituluko I. kapituluko 2. atalean aurreikusitako edozein prozedura jarraitu ahal izango da, zenbatekoa dela-eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izan ezik.

Zortzigarrena.- Kontratatzailearen profila

VISESAk Internet bidez soilik hedatuko du kontratatzailearen profila, kontratu-jarduerari lotutako informazioa eta dokumentuak taldekatzen dituen elementu gisa, gardentasuna eta dokumentuetarako sarbide publikoa bermatzeko xedez.

Kontratatzailearen profilerako sartzeko modua agirietan eta antzeko dokumentuetan zehaztuko da, bai eta lizitazio-iragarkietan ere.

Kontratatzailearen profilean kontratazio-organoetako kontratazio-jarduerari lotutako edozein datu eta dokumentu bildu ahalko ditu.

VISESAk kontratazio publikoko jarduera programatuko du. Jarduera horiek aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko aldietan egingo dira, eta kontratazio-plana alde aurretik jakinaraziko dute, erregulazio harmonizatutako kontratuak jasotzen dituen alde aurreko informazio-iragarki baten bidez.

Edonola ere, kontratazio-organoarekin harremanetan jartzeko erabili daitezkeen informazio orokorraz gain, honako hau jasoko da:

- harremanetarako puntuak,
- telefono eta fax zenbakiak,

- Posta-helbidea eta helbide elektronikoa
- Informazioa, iragarkia eta dokumentu orokorrak,
- egindako kontratuari lotutako informazioa.

Kontratuei lotutako informazioari dagokionez, gutxienez honako hau argitaratu behar da:

- a) Kontratuaren justifikazio-memoria; baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostena, PR07.P01.F02ren arabera, zerbitzu-kontratuen kasuan; kontratua adjudikatzeko erabilitako prozeduraren justifikazioa, prozedura irekia edo murriztua ez den beste bat erabiltzen denean; kontratua arautuko duten administrazio-klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoen agiria, edo dokumentu baliokideak, hala badagokio, eta espedientea onartzeko dokumentua.
- b) Kontratuaren xedea, iraupena, lizitazioaren oinarriko aurrekontua eta adjudikazio-zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga barne.
- c) Aldez aurreko informazio-jakinarazpenak, lizitazioen deialdiei buruzkoak, kontratuen adjudikazioari eta formalizazioari buruzkoak, aldaketa-iragarkiak eta horien justifikazioa, proiektu-lehiaketei buruzko eta proiektu-lehiaketen emaitzei buruzko emaitzak, publizitaterik gabeko negoziatuen arauetan ezarritako salbuespenekin.
- d) Kontratua publizitzeko bideak eta publizitazio horietarako estekak, hala badagokio.
- e) Prozeduran parte hartu duten lizitzaileen kopurua eta identitatea, adjudikazio-prozedurari lotutako kontratazio-mahaiaren akta guziak, edo, mahairik ez egotekotan, dagokion zerbitzuaren edo kontratazio-organoaren ebazpenak, eskaintza bakoitzaren balio-judizio bidez kuantifika daitezkeen adjudikazio-irizpideen balorazio-txostena, hala badagokio, anormaltasun-presuntzioa duten eskaintzei buruzko txostenak eta, nolana ere, kontratua adjudikatzeko ebazpena.

Halaber, kontratatzailearen profilean honako hauek argitaratu beharko dira: kontratua ez adjudikatzeko edo egiteko erabakia, adjudikazio-prozeduraren uko egitea, hutsik gelditu izanaren adierazpena, errekurtsioak ezartzea eta kontratuak aldi baterako bertan behera uztea errekurtsoren bat jarri izanagatik.

Kontratu txikiei lotutako informazioa hiru hilean behin argitaratu beharko da. Kontratu horien kasuan, gutxienez, honako datu hauek argitaratu beharko dira: xedea, iraupena, adjudikazioaren zenbatekoa, balio erantsiren gaineko zerga barne eta adjudikaziodunaren identitatea; halaber, kontratuak adjudikaziodunaren identitatearen arabera antolatuko dira.

Aurreko paragrafoko argitalpenetik salbuetsita geratuko dira bost mila euroko balio zenbatetsia duten kontratuak, betiere botere adjudikatzailleek ordaintzeko sistema kutxa finkoko edo antzeko beste sistemaren bat erabiltzen badute kontratu txikien kasuan.

Halaber, kontratatzailearen profilean honako hauek argitaratu behar dira: ezeztatu diren prozedurak, kontratazio-organoak laguntzen dituzten kontratazio-mahaiaren osaera edo balio-judizio baten mende dauden adjudikazio-irizpideak aplikatzeko (beharrezkoak diren prozeduretan) adituen batzordeko kideen edo erakunde tekniko espezializatuak kideen izendapena.

SPKLren 154.7 artikuluan ezarritako kasuetan, kontratua egiteari buruzko datu jakin batzuk argitaratu gabe utz daitezke. Edonola ere, kontratazio-organoak aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera zehaztutako informazioaren bat ez argitaratzea erabakitzen duen

bakoitzean espedientean justifikatu beharko du.

Bederatziagarrena.- Kontratazioaren formalizazioa

Kontratazio oro idatziz formalizatu beharko da. Hortaz, zerbitzu juridikoek dagokion kontratua egin beharko dute, beharrezkoa den informazioa jaso ondoren.

Kontratazioa idatziz formalizatzeko betebeharra salbuetsita geratuko da obraren zenbatekoa 40.000 eurotik beherakoa bada edo hornikuntza- eta zerbitzu-kontratuen zenbatekoa 15.000 eurotik beherakoa bada. Kasu horietan, derrigorrez idatziz jasotako aurrekontua egon beharko da. Aurrekontua kontratazioa eskatu duen saileko zuzendariak onartu beharko du, eta sail ekonomiko-finantzarioaren oniritzia jaso beharko du, edo bi horiei jakinarazi beharko zaie, dagokionaren arabera.

Aldizkarien eta beste argitalpen batzuen harpidetza, euskarria edozein dela ere, bai eta datu-base espezializatueta jasotako informaziorako sarbidea kontratatzea ere, eta, ezinbestekoak diren neurrian, harpidetzarako edo kontrataziorako beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatzea, horien zenbatekoa edozein dela ere, lege honetan kontratu txikietarako ezarritako arauen arabera eta hornitzaileek aplikatzen dituzten baldintza orokorren arabera egin ahal izango da, ordainketa-formulei dagozkienak barne. Prezioa ordaintzea, kasu horietan, kontratuak arautzen dituzten baldintzetan aurreikusitakoaren arabera egingo da. Hortaz, entrega egin edo zerbitzua eman aurretiko ordainketa onartuko da, betiere merkatuaren ohiturekin bat badator.

Kontratuak zuzendari nagusiak edo baimendutako pertsonak sinatuko dituzten.

Hamargarrena.- Kontratuen ondorioak eta kontratuak iraungitzea

1. IRAUPENA. Kontratuen iraupena honako hauek kontuan hartuta ezarriko da: laguntzen izaera, finantzaketaren ezaugarriak eta horiek aldizka lehiaketatara aurkezteko beharra. Kontratuan luzapen bakarra edo gehiago aurreikusi daitezke, betiere ezaugarriak aldatzen ez badira eta adjudikatzeko lehia kontratuaren gehiengo iraupena kontuan hartuta egin bada, luzapenaldiak barne.
2. EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK. Nahitaezkoa izango da administrazio-klausula partikularren agirian SPKLren 202. artikuluan jasota dauden betearazpen-baldintza berezietako bat gutxienez ezartzea, soziala, etikoa zein ingurumenekoa.
3. ALDAKETAK: Kontratuak aldatzeko baldintzak eta ondorioak SPKLren 204. eta 205. artikuluan ezarritakoak izango dira, lizitazio bakoitzeko agiriek araubide aplikagarri desberdina ezartzen badute salbu.

Kontratuak aldatu daitezke, betiere agirietan edo lizitazio-iragarkian berariaz aukera hori aipatu bada eta hori egiteko baldintzak zehatz-mehatz zehaztu badira. Halaber, erabaki daitezkeen aldaketen irismena eta mugak zehaztu behar dira, berariaz adierazi beharko da kontratuaren prezioaren zer ehunekori eragin diezaiokeen gehienez, eta zer prozedura jarraitu behar den horretarako.

Kontratuen aldaketa baimentzea adjudikatutako kontratuaren kontratazio-organo berari dagokio. Hala ere, administrazio kontseiluak eskumena ematen dio zuzendari nagusiari hark adjudikatutako kontratuei eragiten dieten aldaketa guztiak onesteko.

4. PREZIOAK BERRIKUSTEA. Oro har ez da preziorik berrikusiko, agiri zehatz batean aurreikusten bada salbu.

5. HORNITZAILEEI ORDAINTZEA. Agirian bestelako adierazpenik jaso ezean, hornitzaileei ordainketa guztiak transferentzia bidez egingo zaizkie hogeita hamar eguneko epean, faktura jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.
6. BERMEALDIA. Agirian bestelako adierazpenik jaso ezean, kontratazioen bermealdia urte batekoa izango da produktua edo zerbitzuak erreserbarik gabe jasotzen denetik.
7. SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK. Agirian bestelako adierazpenik jaso ezean, SPKLren 211., 245., 306. eta 313. artikuluetan adierazitakoak izango dira kontratuak suntsiarazteko arrazoiak eta aldez aurretik deklaratu beharko dira.

II. AIPATUTAKO DOKUMENTUAK

PR07.P01.F01	Beharrari buruzko txostena
PR07.P01.F02	Baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostena

III. I. ERANSKINA. KONTRATAZIORAKO BARNE-PROZEDURAREN LABURPEN-ESKEMA

KONTRATAZIO-ORGANOAK	JARRAIBIDE OROKORRAK
<p>➤ Obren kontratuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Administrazio kontseilua: 3.000.000 eurotik gorako zenbatekoak ○ Zuzendaritza orokorra: 2.999.999 euro arteko zenbatekoak. <p>➤ Zerbitzuak kontratatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Administrazio kontseilua: 1.000.000 eurotik gorako zenbatekoak ○ Zuzendaritza orokorra: 999.999,99 euro arteko zenbatekoak. <p>➤ Hornikuntza kontratua:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Administrazio-kontseilua: 600.000 eurotik gorako zenbatekoak. ○ Zuzendaritza Nagusia: 599.999,99 euro arteko zenbatekoak 	<p>➤ Prozedura erkidea:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Kontratazio eskaera 2) Eskaera izapidetzea <p>➤ Kontratua formalizatzea. (bestela, aurrekontua idatziz beti):</p> <ul style="list-style-type: none"> - OBRAK: 40.000 eurotik gorakoak - SUM eta SER: 15.000 eurotik gorakoak <p>➤ Agiriaren beharra:</p> <ul style="list-style-type: none"> - OBRAK: - 40.000 eurotik gorakoak - SUM eta SER: - 15.000 eurotik gorakoak <p>➤ Beharrezko izapideak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Kontratazio eskaeraren justifikazioa 2) Saileko zuzendariaren eta sail ekonomiko-finantzarioaren zuzendariaren baimena; 3) Kontratazio-organoak agiriak onestea; 4) adjudikazio-proposamena; 5) Zuzendaritza nagusiak edo baimendutako pertsonak kontratua sinatzea <p>➤ Alderdi orokorrak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Behin-behineko eta behin betiko bermeak eskatzea; 2) Prezioen berrikuspena ez aplikatzea; 3) Aldaketak eta luzapenak berariaz baimentzea; 4) Urtebeteko bermealdia; 5) Hornitzaileei ordaintzeko epea: 30 egun.
KONTRATU EZ HARMONIZATUAK	KONTRATU HARMONIZATUAK
<p>OBRAK</p> <p>➤ <u>100 euro eta 39.999 euro bitartean:</u> Adjudikazio zuzena (kontratu txikia)</p> <p>➤ <u>40.000 eta 5.382.000 euro bitartean:</u> SPKLren II. liburuko I. tituluko I. kapituluko 2. atalean aurreikusitako prozedurak.</p> <p>ZERBITZUAK ETA HORNIKUNTZAK</p> <p>➤ <u>100 euro eta 14.999 euro bitartean:</u> Adjudikazio zuzena (kontratu txikia)</p> <p>➤ <u>15.000 eta 215.000 euro bitartean:</u> SPKLren II. liburuko I. tituluko I. kapituluko 2. atalean aurreikusitako prozedurak</p> <p>Berriak:</p> <p>➤ PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Obra, zerbitzu eta hornikuntza kontratueterako. Bi betebeharrak: <ol style="list-style-type: none"> a) Kopuru bera edo txikiagoa: 2 milioi euro obretan. 139.000 euro zerbitzu eta hornikuntzetan. b) Balio-judizio baten mende ez dauden edo % 25 gainditzen ez duten adjudikazio-irizpideak (% 45 izaera intelektualeko prestazioetan). 2) Kontratatazailearen profileen soilik argitaratzea. 3) Eskaintzak aurkezteko epea gutx. 15 e edo 20 e obretan. 4) Lizitatzaitleen eta Enpresa Saikatuaren Erregistro Ofizialean inskribatutako lizitatzaitleak. <p>➤ PROZEDURA SUPERSINPLIFIKATUA</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Obra, zerbitzu eta hornikuntza kontratueterako. Bi betebeharrak: <ol style="list-style-type: none"> a) 80.000 eurotik beherako kopuruak obren kasuan eta 60.000 eurotik beherako kopuruak hornikuntzen kasuan. b) Formulen araberako adjudikazio-irizpideak 2) Ezin zaie kontratu intelektualei aplikatu 	<p>➤ SPKLren II. liburuko I. tituluko I. kapituluko 1. eta 2. atalen aplikazioa: Administrazioaren adjudikazio-baldintza berberak (317)</p> <p>➤ Kontratazio-mahaiaren beharra</p> <p>➤ Adjudikazioa eta formalizazioa (15 egun baliadun tartean)</p> <p>➤ Aurretiazko iragarkia egiteko aukera epeak murrizteko (12 hilabeteko aurrerapena)</p>